

GURE AITA  
S. FRANCISCOREN

PENITENCIACO

ORDENAREN CARTACHO ETA ERREGLA,  
AITA CHIT SANTU

LEON XIII<sup>AG</sup>

ZUCENDU ETA EMANA.

NEREA DA.

BEAR DAN BECELA:  
TOLOSAN: EUSEBIO LOPEZ-EN MOLDIZTEGUIAN,  
1883-garren urtean.



LIBRO DE CUENTA Y RAZON  
DE LA FUNDACION

DE SANCHO EL SABIO



M- 17771

ATV

R- 39314

GURE AITA

21622

# SAN FRANCISCOREN

PENITENCIACO

ORDENAREN CARTACHO ETA ERREGLA,

AITA CHIT SANTU

LEON XIII<sup>A C</sup>

ZUCENDU ETA EMANA.




BEAR DAN BECELA.

TOLOSAN: EUSEBIO LOPEZ-EN MOLDIZTEGUIAN,

1883-garren urtean.







*Gure Jaun guciz Santu, Jaungoicoaren Gobernu zucenaren bidez Aita Santu LEON XIII<sup>ac</sup> San Franciscoren 3<sup>rrer</sup> Ordenaco Erregla modu onetan ipiñia.*

---

Leon, Obispo, Jaungoicoaren serbitzarien serbitzariac betico oroipeneraco.

Guizonai uztarri bigun eta carga ariña gañean ipiñiric, gucien bicitza eta salbacioari beguiratzen dion Jaungoicoaren Seme urricaltsuac berac jarritaco Eliza utzi zuen, ez bacarric bere escubidearen jabe, baicic bai bere urricaltasunaren heredero ere, berac logratutaco mesedeac iñoiz ere mudatzen



eztan onguinai edo caridadearen bidez guizaldi gucietaco gendeetara zabal citecen. Orregatic, nola Jesucristoc bere bicitza gucian eguiñ edo aguintaco gaucetan jaquintasun gozo eta onguinai eciñ andiagoa aguiridan, ala Elizaco Ordena bacoitzean biguntasun eta eztitasun añ andia icusten da, nun, *Caridadea* dan Jaungoicoaren irudi bicia dala, argui eta garbi aguiridan. Biguntasun añ samur onec berezcoa du batez ere, al ditequeaneraño legueac demborai eta oiturai dagoquien eran ipiñtzea, baña aguintzean eta escatzean zucentasunic andiena gordetzea. Emendic dator Elizac biguntasun eta bidenabar jaquintasun onequin beti eta dembora gucietan bere dotriña oso eta ecertan icutu gabe gordetzea, eta ori gordetzeco artzen dituen neurriac, premia escatzen duenean, aldatzea.



Guc Aita Santuaren guere beargai goratua eguiteco gure asmo eta intencioa arrazoi onen erara ipiñi, eta icusten degu, gure eguinquizuna dala demborac nolacoac diran pisu zucenean pisatu, eta dembora oyetaco gauza guciac ondo beguiratzea, au eguin gabez bertutezco gauzac eguitelic norbait atzeratu eztediñ. Eta orañ Guc gauza bear eta prochugarritzat daucagu San Franciscoren Irugarren Ordena zucen bide onetara ecarri, eta demboren aldaerai soseguz eta ondo beguiratu, eta bere legueac cerbait arindu bear diran icustea.

Guc orañ baño len, joan dan urteco Iraillaren 17-an, zabaldu guenduan gure carta *Auspicato*-ren bidez berotasunic andienaz Aita San Franciscoren Ordena garai au alabatu eta biciro encomendatu guenduan. Eta carta ura al citezquean guciac cristauaren biciera



santura bere garayan deitzeco asmo eta intencio bacarraz zabaldu guenduan. Eguiaz, azpian gauzcaten gaitzen, eta gañean dauzcagun peligroen lenengo sustraya bertuteen gordetzean zabartzea izan da, baña guizonac eciñ erremediatico dituzte gaitz oyec eta eciñ ebaquico diezate bidea arriñcu oyei, ceñ eta ezcultuan eta aguirian Jesucristogana itzultzen eztiran, *ceñac beti salbalitzaquean bere bitartez Jaungoicoagana urreratzen diran guciac.*(1) Orañ bada, San Franciscoren iru Ordenac Jesucristoren aguinduc gordetzeco ipiñiac dira, alabaña Ordena oyec ipiñi cituan Santuchitandiac beste fiñicizan etzuan, ezpada contu eta eguiñ al andiangoaz cristau-bicitza gordetzeco guerra-lecubat ipintzea. Eguiaz San Franciscoren lenengo bi Ordenac, bertute andien escolan chit trebetuac becela, bertute-

(1) Hebr. VII. 25.



ric andi eta jaungoicozcoen gucietara  
dijoaz zucen. Baña bi Ordena oyetan  
guchi sartu litezque Evangelioco conse-  
juac gordetzera: Jaungoicoaren berariz-  
co graciac deitzen dien ayec bacarric  
sar ditezque. Baña irugarren Ordena  
erriarentzat eguiña jayo zan, eta gau-  
zac berac berez, eta igaroco dembore-  
tan guertatu danac argui eta garbi  
aguertzen dute, cembat indar eta ceñ  
eraguillea Ordena onec daucan, oitura  
on, tacha gabe eta bertutezcoac eman  
eracitzeco.

Conseju onen eguille eta laguntzalle  
Jaungoicoari esquerrac diozcagu, cris-  
tau-erriaren belarriac gure dei amo-  
riozcoai gor eguiñ etzaiztelaco. Baicic  
eta badaquigu, lecu chit ascotan pistu  
dala Asis-co Francisco-ganaco jayera  
eta debocioa, eta irugarren Ordenan  
sartzea escatzen duten personac guero  
ta gueyagotuaz dijoacela. Orregatic



lasterca dijoacenac aculatzeco becela,  
Guc gogo zorioneco oni ecertan contra  
eguin ceguioquean edo luzaraci ceza-  
quean gucia ondo beguiratu eta icus-  
teco asmoa eguin guenduen. Lembi-  
cian gure aurreco Nicolas IV-nac 1289-  
garren urteco Abuztuaren 18-an *Su-  
pra montem* deritzan bere cartaz ontzat  
eman eta sendotu zuan Irugarren Or-  
denaco Erregla ondo beguiratu eta  
esamiñatu, eta Erregla ura gure egu-  
netaco usadio eta oiturentzat chit ego-  
quia eztala, icusi degu. Beragatic, or-  
duan ontzat artu ciran eguinquizun  
eta obligacioac nai aibat aldapa eta  
nequegabe orañ eciñ bete edo cumpi-  
turic, Irugarren Ordenan sartuac dau-  
denac escatu ta Erregla aren gauz asco  
ezpaciraquean becela utzi bear izan  
dira oraındaño, eta gucien leguearen  
calte gabe iñoiz ere au eciñ guerta li-  
tequeala ezagutzen erraz da.



Gañera Ordena beronetan gure con-  
tu eta arreta escatzen cituen gauza bat  
ere bacegoan: esan nai degu, Erroma-  
co Aita Santu gure aurrecoac Irugarren  
Ordena bere asieratic onguinairic an-  
dienaz eta chit ontzat arturic, Ordena  
onetacoai indulgentzi asco eta andiac  
eman ciztela, beren culpac barcatzeco.  
Urteac joan diran becela, onguite edo  
mesede oyec cierto señalatzea chit gaitz  
eguin zan, alatan non ceñbait suer-  
talditan Aita Santuaren barcacio osoa  
ciertoa otè zan, eta cer garaiian eta  
cer neurritan usatu ote citequeanaren  
gañean duda asco sortu, eta galde asco  
sarritan eguiñ oi ciran.

Eguiaz Aita Santuaren Jarlecu onen  
gobernu zucenac onelaco premia be-  
guiratzea utzi etzuan, eta chit batez  
ere Aita Santu Benedicto XI V-nac  
*Ad Romanum Pontificem* deritzan 1751-  
garren Marchoaren 15-an emandaco



bere cartan, izan ciran duda andienac erabaqui cituen. Baña oi becela demborac duda berriac ecarri cituen.

Beragatic Guc aldapa eta trebesiac beguiratu ondoan, Indulgentzien Congregacio Sagraduari eta Erliquia Sagraduenari dagozquien Erromaco Eliza santuco ceimbait Cardenal esleitu ditugu Irugarren Ordenaco legue zarrac arretaz beguiratu eta cer gauza oraingo demboren erara lenean bertan utzi, eta cer berritu bear diran beren iritzia eman deguigtela, encargatuaz. Aguin du degun gucia eguiñ ondoan, esan ditugun Cardenalac lengo cembait capitulu biguñdu, eta oraingo bicitze-co modura moldatu eta ecarri bear diralaco iritzia beguietaratu ciguten. Eta induljentziaz dagoquenez, duda eta ezjaquiñai lecuric ez emateco, eta gaucen bat bear becela ez joatearen perilla quentzeco juzcatu zuten, Jaquintsuac



becela, eta ondo eta probechu andiaz eguingo guenduela, baldiñ Benedicto XIV-ren guisa oraindaño beren indarrean dauden induljenti guciac quendu eta indargabetu eta Ordenari beste berriac ematen baguiñiozcan.

Beragatic, Jaungoicoaren gloriaren oneraco, eta glori au gueitzeco izan dediñ, eta piedade ta beste bertuteacganaco amorioabeti gueyago iracequi dediñ, Guc Constitucio edo erabaquionequin, eta Apostoluacgandic datorquingun gure escu eta nagusitasunaz berritzen eta lengo indarrean uzten degu San Franciscoc errico gendearentzat ipiñi zuan Irugarren Ordenaco Erregla ondoren dagoen becela. Onequin iñorc uste ez beza Ordena beraren barrungo izatea dan guchienean ere mudatzen edo erabiltzen dala, bada, contrara, Erregla onec oso eta iñolaco acats gabe irautea nai degu. Gañera nai eta aguin-



tzen degu, Irugarren Ordenaco guciac ondorengo erroldede edo listan señalatuac arquituco diran indulgentzi eta pribilegioaz gozatzea, cer nai demboretan, icenetan edo maneratan Jarlecu Apostolico onec gure egunetaraño Ordena berari eman diozcan indulgentzi eta pribilegio guciac oso indargabetuac gueratuaz,

*Aita San Francisco Serafin-darraren Penitenciaco Irugarren Ordenaco anai-arreben Erregla.*

---

### LENENGO BURUA.

*Ordenan artzearen, Nobiciaduaaren eta Profesioaren gañean.*

1.<sup>a</sup> Ez bitez artu, ezpada amalau urtetie aurreracoac, eta oyec oitura onetacoac, paquetsuac eta batez ere cris-



tau fedean, eta Erromaco Elizari eta Aita Santuari zor zayon obedientzian prograduac.

2.<sup>a</sup> Ez bitez artu andre ezconduac beren senarren ezagüera eta baimen gabe, nun eta beren confesoreen iritzian bestera eguin bear dala uste ezlan.

3.<sup>a</sup> Ordenan artuac soñean erabili bezate, oitura dan becela, escapulario chiquia cordoyarequin batean, eta orieac ezpadarabiltzquite, emandaco escubide eta gracienc jabe izan ez bitez.

4.<sup>a</sup> Ordena onetan sartzen diranac lembicico urtea Nobiciaduan igaro beza; eta guero bear becela profesatuaz, Jaungoicoaren aginduac gordeco dituztelaco, Elizaren esanetara obedientziya izango dutelaco eta agindutaco gaucen batean uts egiten badute, ort daintzeco eta penitencia eguiteco pressegongo diralaco itza eman bezate.



## BIGARREN BURUA.

### *Bicitzeco moduaren gañian.*

1.<sup>a</sup> Irugarren Ordenaco anai-arrebac lujo eta moda eragabeac gucian despreciatu eta norc bere bici-modubari dagoquiyon neurri modestitsubat, gorde bezate.

2. Conturic andienaz gorde bitez dantza, festa eta comedi peligrozcoetic, eta jan-edan aundietatic.

3.<sup>a</sup> Neurrian jan eta edan bezate, eta aurretic Jaunari debocioaz oracio eguin, eta jan ondoan esquerrac eman gabe maitic alcha ez bitez.

4.<sup>a</sup> Birgiña Mariaren Concepcio garbiaren bezperan eta gure Aita San Franciscorenean guciac barautuco dute: eta anciñaco Irugarren Ordenacoen guisa ostiraleco baraua eta asteazque-



netaco abstinencia gordetzen dituzte;  
nac, alabantza merecico dute.

5.<sup>a</sup> Illoro beren becatuac bear be-  
cela confesatu bitzate (*comulgatuaz.*)

6.<sup>a</sup> Irugarren Ordenacoac diran, eta  
egunoro Eliz-errezoa eguiten duten  
apaizac errezo au eguitera baicic bear-  
tuac egon ez bitez Eliz-errezoac eta  
*Birgiña Mariaren Oficio chiquia* ere  
eguiten ez dituzten bestelacoac eguno-  
ro amabi bider *Aita gurea, Ave Maria*  
eta *Gloria Patri* erreza bitzate, baldiñ  
gaño ezpadaude.

7.<sup>a</sup> Leguez testamentua eguiñ  
dezaquetenac, bacoitzac bere gauzaz  
demborarequiñ eguiñ bezate.

8.<sup>a</sup> Alcarrequico bicieran beren  
ejemplo onarequin guciai gañ eragui-  
tera, eta al dituzten gauza on eta obra-  
ric onenai aurrera bidea ematera saya  
bitez. Bertuteari calteren bat eguin li-  
zayoquean liburu edo paperic beren



echera eramateco lecuric eman ez bezate, eta beren aguindupecoai oriec iracurten utzi ez beguiezate.

9.<sup>a</sup> Dala alcarren artean edo dala Ordenacoac eztiranaquin onguinaizco caridade bat beti utsunegabe gorde bezate. Erroidu-aserreac quendu eta adisquidetasunac eguitera al guciaz sayabitez.

10.<sup>a</sup> Iñoiz ere premia gabe juramenturic eguiñ ez bezate. Itz loiric beñere esan ez bezate, eta ichura gaistocochancha farragarriac esatetic gorde bitez. Gauean concientzia esamiña bezate, uts eguiteren bat eguiñ ote duten icusteco, eta eguin badute, damutu eta penitentziaz ordaindu bezate.

11.<sup>a</sup> Al dezaqueenac egunoro Meza Santua entzun bezate. Zucendari edo Directoreac deitzean illeroco Juntetara zucen joan bitez.

12.<sup>a</sup> Gucientzaco dagoan caja ba-



tean bacoitzac dezaquean limosna ipiñico du, bearrean dauden eta batez ere gaño dauden anai-arrebai laguntze-co,edo Eliz-lanac alic onguien eguiteco.

13.<sup>a</sup> Ministroac berac berez icusi edo bisitatuco dituzte gaño daudenac, edo ta oetara bidaldu bezate carida-deari dagozcan eguiñquizunac eguiñ-go dieztenen bat. Gaitza peligrozcoa bada, añimaco gauzac demboraz zucen-tzera gañoa muguitu eta jartzera saya bitez.

14.<sup>a</sup> Ala errico anai-arrebac nola errian dauden campocoac, Ordenaco anai edo arreben illet edo progüetara joango dira; dembora berean *Errosarioaren* irugarren partea illaren sufragioan erreza bezate. Gañera Apaizac Sacrificio Santuan eta bestelacoac, al badute, Comunio Sagradua artuaz, biguntasun andiaz illaren betico descantsuagatic erregu bezate.



## IRUGARREN BURUA.

*Bacoitzaren Beargai edo Oficioaren, Bisitaren eta Erregla beraren gañean.*

1.<sup>a</sup> Anai-arreba batzarrean bilduric, Ordenaco lan edo oficioac eman bitzate. Oficio oyec izango dira iru urteraco. Emandaco oficioa artzea arrazoi bidezco gabe inore utzi ez beza, eta artutacoa naguitasun gabe bete beza.

2.<sup>a</sup> *Bisitatzailea* al guciac saya bedi erregla zucen gordetzen ote dan jaquitera. Onetaraco urtean beñ eta ala bear bada gueyagotan, dezaquean becela, bisita bitza Irugarren Ordena jarritaco lecuac, eta batzarrea eguiñ beza, Ministro eta anai-arreba guciai biltzeco aguinduaz. Baldin *Bisitatzaileac* dala gaztigatuaz edo dala aguiduz norbait bere eguinquinunai jarrai-



tzera deitzen badu, edo oni penitentzi osasungarriren bat ipintzen badio, umilqui artu, eta uzcurtasun gabe bete beza.

3.<sup>a</sup> *Bisitatzalleac* edo San Franciscoren lenengo Ordenacoetatic, edo San Francisco beraren Irugarren Ordenaco Erregla gordetzen duten erlijiosoetatic esleituac izan bear dira, eta oyec, ala escatzen diotenean, *Guardianoac* icendatu bitza. Sacerdote ezliranac *Bisitatzallearen* cargua iñoiz ere izan ez bezate.

4.<sup>a</sup> Obeditzen ez duten eta zucendu nai ez duten anai eta arrebai bigarren eta iragarren aldiraño ere zucen bidea beren eguinquizunaz eman bizaye; baina obeditzen ezpadute, Ordenatic bota bitez.

5.<sup>a</sup> Guciac jaquiñaren gañean beude, ceen aguindu oetan norbaitec uts eguiten balu, Jaungoicoaren edo Eli-



zaren Mandamentuac aguintzen edo debeatzen dutenaz campora, becatu-ric eguiten eztuala.

6.<sup>a</sup> Norc edo norc legue onen zati-  
ren-batzuec osatzeco eciñquizun larri-  
bidezcoenbat balu, ura oetatic ascatzea,  
edo oec beste gaucen batera ari alda-  
tzea, cillegui izan bedi. Au eguiteco  
escu eta poderea izan bezate Francisco-  
ren Lenengo Ordenaco Buruzagui be-  
rezcoac, baitere Irugarrenecoac, eta len  
esandaco *Bisitatzalleac*.

*Indulgentzi eta pribilegioen  
errezcada.*

### LENENGO BURUA.

*Indulgentzi oso edo plenaria.*

Bear becela confesatu eta co-  
mulgatzen diran, Irugarren Ordenaco  
anai-arrebac irabaci lezaquee Indul-



gentzi oso edo plenaria ondorengo egu-  
netan eta gauzacgatic:

*Lembici.* Ordenan sartzen diran egu-  
nean.

*Bigarren.* Profesatzen diran egunean.

*Irugarren.* Illeco ballera, junta edo  
itz-aldico egunean, gucientzat idiquia  
dagoan Eliz edo Capillen bat debocioaz  
bisitatu eta, eguiñ oi dan becela, Eliza-  
ren premiagatic Jaungoicoari erregu-  
tzen badiote.

*Laugarren.* Gure Aita San Francisco  
Serafindarraren egunean, au da, Urria-  
ren 4-ean.—Santa Clara Birgiñaren  
egunean, Abuztuaren 12-an.—Aingue-  
raen Erreguiña Mariachit Santaren fest  
egun edo bere Eliza consagratu citza-  
yoneco egunaren oroipenean, Abuztua-  
ren 2-an.—Irugarren Ordena ipiña da-  
goan Elizaco Patroi Santuaren fest egu-  
nean, Eliz ura bisitatzera joan eta Eli-  
zaren premiagatic an erregutuaz.



*Bostgarren.* Illean beñ berac aututzen duten egun batean gucientzat idiquia dagoan Eliz edo Capillen bat beren gogoz bisitatu eta an Aita Santuaren intencioraco cerbait demboran errezatuaz.

*Seigarren.* Biciera ohea eguiteco zalez espirituco gaucetan pensatzera eta jardutera zortzi egunez bacarrera biltzen diran aldi gucietan.

*Zazpigarren.* Baita ere iltzen daudenac Jesusen icen osasungarria itzez, eta itzez ecin badute, biotzaz deituaz. Oyec beroc goza bezate graci onez, baldiñ confesatu eta comulgatu eciñ badira, contricio eguiazcoaz beren becatuaz damutzen badira.

*Zortzigarren.* Urtean bi aldiz *Aita Santuaren Bendicioa* artzeco garayan, baldiñ Aita Santu beraren asmo eta intencioraco cerbait demboran Jaungoicoari erregutzen badiote. Eta era onetan bertan artulezaquee *absolucioa*, au



da *bendicioa*, oracio ori bera eguin, ta esango diran egunetan:

1.<sup>a</sup> Jesucristo gure Jaunaren jayotz egunean edo Egüerri egunean.

2.<sup>a</sup> Pazcoa Erresurrecciocoan.

3.<sup>a</sup> Pazcoa Mayatzeco egun andian.

4.<sup>a</sup> Jesusen Biotz guciz Santuaren fest egunean.

5.<sup>a</sup> Maria Birgiña doatsuaren Sor-tze edo Concepcio guciz garbiare-nean.

6.<sup>a</sup> Bere Esposo San Joserenean, Marchoaren 19-an.

7.<sup>a</sup> Gure Aita San Franciscori lla-gac ezarri citzaizcan fest egunean, Agorraren 17-an.

8.<sup>a</sup> Irugarren Ordenaco anayen Pa-troi gloriatsu San Luis Franciaco Erre-guerenean, Abuztuaren 25-an.

9.<sup>a</sup> Hungria-co Santa Isabelenean, Azaroaren 19-an.

*Bederatzigarren.* Gañera Aita San-



tuaren intencioaren erara Eliza Santaren osotasunagatic bost *Aita gure*, bost *Abe Maria* eta *Gloria Patri*-requiñ, illean beñ errezatzen dituzten guciac irabacico dituzte illean beñ Erromaco Estacioac, eta Porciunculacua edo Jerusalemgo Lecu Santuac, edo Galiciaco Santiago debocioaz bisitatzen dituztenai eman zaizten indulgentzi eta barcacioacberac.

*Amargarren.* Norc bere Irugarren Ordenaco Eliz edo Capilla bisitatu eta eguiñ oi dan becela, Erromaco Misalac señalatzen dituan Estacio egunetan Eliza Santaren premietaraco an errezatzen duan nor nai Irugarren Ordenacoe irabacico ditu Erroman bici-dirac, eta campotic ara dijoacen arrotzac egun ayetan gozaten dituzten graci eta ondasun ugariac.



BIGARREN BURUA.

*Demborazco indulgentziaz.*

*Lembici.* Irugarren Ordena ipiñia da-  
goan Eliz edo Capilla bisitateaz Eliza-  
ren osotasunagatic Jaungoicoari erregu-  
tzen dion Irugarren Ordenaco nor nairi  
zazpi urte eta zazpi berrogeico indul-  
gentzia ematen zayo gure Aita San  
Franciscori Ilaga sagraduac ezarri ci-  
tzaizcan egunean, Franciaco Erregue  
San Luisenean, Portugalco Erreguiña  
Santa Isabelenean, Hungria-co Santa  
Isabelenean, Cortonaco Santa Margari-  
tarenean, eta Ordenaco Ministroaren bai-  
menarequin bacoitzac urtean esleitzen  
dituan amabi egunetan.

*Bigarren.* Cembat bider Irugarren Or-  
denacoac Mezara edo Eliz funcioetara,  
edo batzar edo juntetara joaten diran:  
cembat bider pobreaki ostatu ematen  
diezaten, edo aserre eta erroiduac pa-  
quetzen dituzten edo paquetzera saya-



tzen diran: Erligiozco procesioetara joaten diranean, edo Jauna caleetatic dramatenean berari lagunduaz, edo aucein badute, chincherriaren otsa aditzean *Aita gure* eta *Abe Mariaren* oracioac errezatuaz, Elizaren onagatic, edo anai edo arreba illacgatic bost *Aita gure* eta *Abe Maria* errezatzen dituztenean, edo illai campo santura laguntzen diezatenean, edo bide gaistoetan dabillenenbat bide onera eracarten dutenean edo norbaiti Jaungoicoaren aginduac eta salbatzeco bear diran gaineraco gauzac eracusten diezatenean, edo onelaco beste cer nai caridadezco lan eguiten duten bacoitzean 300 eguneco indulgentzi edo barcacioa irabazten dute.

Eta Irugarren Ordenacoac, nai badute, esan diran indulgentzi guciac, ala *plenariac* nola *demborazcoa*; cristau fededun illen animen alde, edo orien



sufragioan, eman edo aplica litzaquee.

## IRUGARREN BURUA.

*Pribilegioen gañean.*

*Lenengoa.* Irugarren Ordenaco Sacerdoteac non nai Meza eman dezatela, astean iru egunetan aldare pribilegiatuaz goza bezate, baldin beste egun bateraco pribilegio ori bera irichi ezpadute.

*Bigarrena.* Sacerdote oyec beroc Irugarren Ordenaco illen baten edo batzuen sufragioan Meza ematen dutenean, non nai eman dezatela, oyentzat aldare ura beti pribilegiatua izan bedi.

Eta Guc nai degu, agundu ditugun gauza guci oyec, eta beretaco bacoitza secula guciraco sendo, firme, irauncor eta beti batean gueratzea, ala Gure nola Erromaco Chancilleriaren Agundu, Letra Apostolico, Legue, usadio, pribilegio eta beste Erreglac agundu degunaz contraco beste cer nai gauza agunduarren Gure Letra oyec autis



edo erabiltzeco escubideric inolatan, edo dan gauzaric chiquienean ere, inorric izan ez beza bada. Eta baldin norbait au eguiteratzen balitz, jaquinaren ganean bego, gucia dezaquean Jaungoicoaren eta Pedro eta Pablo apostoludoatsuen aserrean erorico dala.

Erroman, San Pedron, Jaunaren Guizon eguitetic 1883-garren urteco Mayatzaren 30-an Gure Aita Santutzaco seigarren urtean. — C. Sacconi Cardinal *Pro-Dataria*. — Cardinal Martei. — *Icusia: De Aquila Visconti.* — *Silluaren lecna.* — *Aita Santuaren Buldachoan Secretarian ezarria*, I. Cugnoni.

---

*Beguir.* Irugarren Ordenaco gure anai-arrebai Aita Santuac Legue eta Erregla onetan ematen dizten indulgentziaz gañera irabaci litzaque 1-go Ordenacoai ematen diztenac ere, eta dira ondorengo oyec:



*Illbeltzaren*

16-an. San Bernardo eta 1-go Ordena-  
co bere lagunac.

30-an. Santa Jacinta Mariez, alargun  
Irugarren Ordenacoa.

*Otsaillaren*

5-an. San Pedro Bautista eta Lagun  
Martiri 1-go Ordenacoac.

19-an. San Conrado, Confesore 3-en  
Ordenacoa.

21-an. Santa Angela Merici, Alargun  
3-en Ordenacoa.

22-an. Cortona-co Santa Margarita,  
3-en Ordenacoa.

*Marchoaren*

5-an. San Juan José de la Cruz, Conf.  
1-go Ordenacoa.

6-an. Santa Coleta, Alargun 2-en Orde-  
nacoa.

9-an. Bolonia-co Santa Catalina, Alar-  
gun 2-en Ordenacoa.



*A pirillaren*

3-an. Palermo-co San Benito, Confesore 1-go Ordenacoa.

*Mayetzaren*

13-an. San Pedro Regalado, Confesore 1-go Ordenacoa.

17-an. San Pascual Bailon, Confesore 1-go Ordenacoa.

20-an. Sena-co San Bernardino, Confesore 1-go Ordenacoa.

*Garagarrillaren*

13-an. Padua-co San Antonio, Confesore 1-go Ordenacoa.

19-an. Miquelina Doatsu, Alargun 3-en Ordenacoa.

*Uztaren*

8-an. Portugal-co Santa Isabel, Alargun 3-en Ordenacoa.

9-an. San Nicolás eta Lagun Martiriac, 1-go Ordenaiac.

14-an. San Buenventura, Obspoco eta Maisu 1-go Ordenacoa.



24-an. San Francisco Solano, Confesore  
1-go Ordenacoa.

*Abuztuaren*

2-an. Porciunculaco Indulgentzi eta  
Barcacio osoa.

12-an. Santa Clara Birgiña, 2-en Orde-  
nacoa.

19-an. San Luis, Obispo eta Confesore,  
1-go Ordenacoa.

25-an. San Luis, Franciaco Erregue eta  
Confesore, 3-en Ordenacoa.

*Agorraren*

4-an. Vitesbo-co Santa Rosa, Birgiña  
3-en urenacoa.

17-an. Gar Aita San Francisco Sera-  
findarrven Llagac.

24-an. Seer-co San Pacifico, Confesore  
1-go Ordenacoa.

*Urriaren*

6-an. Santa Maria Francisca Zaurieta-  
coa, Birgiña 3-en Ordenacoa.

13-an. San Daniel eta Lagun Martiri,



- 1-go Ordenacoac.  
19-an. Alcantara-co San Pedro, Confesore 1 go Ordenacoa.  
23-an. San Juan Capist., Confesore 1-go Ordenacca.

*Azaroaren*

- 12-an. Alcala-co San Diego, Confesore 1-go Ordenacoa.  
19-an. Hungria-co Santa Isabel, Alargun 3-en Ordenacoa.  
26-an. San Leonardo, Confesore 1-go Ordenacoa.  
28-an. Marca-co San Jaime, Confesore 1-go Ordenacoa.  
29-an. San Franciscoren Ordenaco Santu guciac.

*Abenduaren*


- 8-an. Gure Ama Maria chit Santaren Sortze edo Concepcio chit garbiaren fest eguna.

A. M. D. G.









1111